

www.baleike.com

2006ko UZTALIA,
146. ZENB. DOHANIK

baleike

zer gertatuko da
oxford?
ekin



E U T S I ! G O G O R , U D A O S O A F I L M A T Z E N

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Mikel Olasagasti

Joseba Alkorta

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Azalaren argazkia

Ines Aseginolaza

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
ze berri	8
elkarrizketa	
alberto j. gorritiberea	11
gure zumai zarra	
anjel osa arrizabalaga	17
erreportajea	
oxford	21
kirola	
surf txapelketa	26
triatloia	27
unai gijarro	28
kultura	
ander hormazuri	30
udako zinea	32
agenda	34



Zumaiarrak Quebrantahuesosen hezurrak hautsi arte

Zumaiarrak, beste urteetan bezala,
emaitza duinak lortu dituzte
txirringularitza proba gogor
honetan.

BALEIKEren bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:30etik 18:30era

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiaiko Udala


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

 **kutxa**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Argazkia

Kotxetik irten orduko agurtu dituzte balkoitik: "Berandu! Afa-ria hoztu da honezkeru!" Mikelek sagardo-botilak hartu, Amaiak kotxea itxi, eta presaka hurbildu dira portalera. "Elegantea! Kamera eta guzti". Din-don moduko bat, "Cierre la puerta después de entrar", eta zuzenean igogailura.

–Gure etxekoaren antza dauka barrutik, ispilu eta guzti–bota du Amaiak.

–Gurea, estuagoa, ezta?– erantzuna Mikelek.

Beste "din-don" bat, "Cuarta planta", atea ireki eta aurrez aurre Nerea eta Josu. "Pasa!". "Kosta zaigu, baina halako batean, elkartu gara", esan diote neskek elkarri, muxu pareta eman eta gero. Nereak Amaia zuzenean egongelara darama: "Zer iruditzen?". Nereak bere eskuarekin Amaiaren begirada leihorantz zuzendu du. "Aizu, Nerea, a ze argitasuna, ezta? Gure etxeko egongela ez da hain argia. Zuek bista ederrak daukazue, mendia han urrutira, baratzak hor behean... Guk, berriz, terrazara irten, bueno, terraza, zerbait esateagatik, eta aurreko atso zaharra ikusi behar. Mutil eder bat balitz!". "Ez zaitetz hainbeste kexatu Amaia, zu beti igual".

Mutilak, bitartean, sukaldean sartu dira, unibertsitate garaiko abentura eta parrandekin akordatzeaz bat, urteak nola pasatzen diren ezin sinetsita.

–Aizak, hi, a ze etxea, ezta?– moztu du Mikelek-. Sukaldea ere moderno-moderno! Su-gaineko kanpai hori non erosi? Gu ere ibili gintuan horrelako zerbaiten bila, eta azkenean, etsita, laukizuzen formakoa hartu behar. Eta hozkailu

hori? Makina bat Sanmiel kabitzten duk hor!

–Onena sua duk, Mikel. Ia-ia plaka gainean sakatu baino lehen hasten duk ura irakiten. Argiñanoren pare! Eta garbitzeko, likido urdin bat, trapu bustia, eta lentilak jartzeko erabiltzen dudak ispiluaren pare geratzen duk!

Mutilak konturatu gabe Amaia eta Nerea sukaldean sartu, entsalada mahai gainera atera eta elkarren ondoan jarri dira. "Aizue, bihar goizean jai, ala? Guk goiz jaiki behar dugu! Ala, mahaira!"

–Hi, Josu, ez nian hire entsalada-fazeta hau ezagutzen.

–Egon hadi pixka bat. Ikusiko duk labeak nolako oilaskoa prestatzen duen. Oraindik ere gustua hartu behar zioat sukalde-kontu honi. Ez naik amak ikusten!

Neskak elkarri begira geratu dira, hitzik esan gabe, irribarez, mutilek sekula harrapatzen ez dituzten pentsamendu eta begiradak ulertuta bezala.

Baina Nerea eta Amaia ez dira konturatu sukaldeko horman dagoen argazkiko ume talde bat ere irribarez dagoela, lauri begira.

–Aizue, argazki hori?– galdetu du Mikelek.

Lau lagunen begi eta taupadak argazkian iltzatuta geratu dira. Ikastolako 4. mailan Larraulen gelakoekin batera ateratakoa da.



Ibon Aizpurua

dani



KARAKATÓN!



x a 2

Ke tze! Kereketzé!
Parapatzé, patzé,
tonton! Parapatzé,
patón, arrikitzé,
paraparriki, katzé,
patón, karakatón!
Ton,ton!

Batzuetan ahaztu
egiten zaigu gure
komunikazio
gaitasuna noraino iritsi
daitekeen. Hizkuntza

gutxiuaren herrian bizi gara, eta euskararen egoeraren arrazioak azaltzen ez naiz ni hemen hasiko. Baina komunikazioa ez da hizkuntza arrunta soilik. Mundutarrok gai gara elkar ulertzeko beste bide batzuk sortzeko. Zabaltzeko eta erabiltzeko ere bai, gai gara. Gehienetan ahaztu egiten zaigu, ordea, eta betiko bla-bla-bla horrekin jarduten dugu. Morau dixit: guay gara.

Ordenagailuaren teklatuari oraindik ez diot neurririk hartu; izan ere, Pirineos Sur jaialditik iritsi berria naiz. Burua han oraindik ere. Argentinako milongak, Portugalgo fadoak, Al-Andaluseko cante jondoa, eta Bartzelonako mestizaiaren eztanda. "Bajofondo Tango Club", Mafalda Arnauth, Enrique Morente eta "Ojos de Brujo" izan genituen. Mundua

lakuaren ertzean. Doinuen eta altermundisten zikilisalza honetatik komunikazio ahalmenaren lagin bat. Adibide bat, txatal bat "Ojos de Brujo" taldearen emanaldian izan zen.

Oholtzaren alde batean, rapeatzaile bat zegoen, bisera eta guzti, galtzak ipurtaldean zintzilik, eta mikrofonoa eskuan mingainari eragiteko prest. Harenak dira artikularen hasieran baldarki kopiatu ditudan hitzak. Rapeatzaileak emakume bat zuen parez pare. Flamenko dantzaria zen, takoiekin eta jenio biziarekin. Bien arteko elkarriketa berezi bat ikusteko aukera izan genuen. Batak bere mingaina dantzatzen zuen beldurrik gabe, besteak takoiak astinduz erantzuten zion. Batak biziago, bestea berdin. Dialektika berezia inondik ere, doinuak aurrera zihoan heinean bi hizkuntzak uztartuz joan ziren, elkar ulertuz. Indar biziz bukatu zuten: karakatón! Erakustaldi bikaina.

Sallent ingurua ez nuen ezagutzen, eta ederki. Zelaian etzanda geundela, siesta giroan, han ikusi genuen ume bat jolasean. Gu hari begira, eta bera guri. Guztiok barrez. Nola izena zuen galdetu genion, eta Aritz. Hurrengo galdera, logikoa: eta nongoa zara? Erantzunik ez. Non bizi zaren, Aritz? Bera momentu batez pentsatzen jarri zen, eta halako batean: Eeehh, guk furgoneta bat daukagu.

Beste hizkuntza batean ari zen.

ilarfi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Emilio Perez
Elektrikari, telebista eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konposaketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskainet.net

BERTSO ESKOLAKOEN IKASTURTE AMAIERAKO BALANTZEA

Joanito Dorronsoro

Ekainaren 9an egin genuen guztiok, irakasle nahiz ikasle, aurtengo ikasturtearen agur merienda Aita Mari jatetxean. Kurtso bukaera beti izan ohi da mugitu samarra. Maiatzean datoz urtero azken txanpa estuan, bai eskoletako bertso emanaldiak, bai Eskolarteko txapelketa. Zumaiaiko herri eskolan, Oikiakoan eta Aizarnazabalgoan egin ditugu aurten ere gure bertso saioak bertako ikasleen aurrean. Urduritasuna, bertso politik tartean, asmatu ezina, poza eta nahigabea, denetik izaten da nahasian horrelakoetan, gogoratzen al duzue

inoiz bertan parte hartu duzuenok?

Gipuzkoako Eskolarteko 26. txapelketa izan da aurtengoa. 1981ean hasi zenetik gaur arterainoko bidean, ez dakit urterik huts egin ote dugun zumaiaerok. Zarautzen egokitu zitzaigun parte hartzea maiatzaren 12an, bai bertso idazketa sailean, eta baita txikien mailako bat-batekoan ere. Ane Altuna zumaiaerak aipamen berezien saria jaso du idatzietan. Maria Maia, Amaia Oliden, Itsaso Urkidi eta Argi Yeregi laukoteak osatu du bertsolari gazttxoen gure ekipoa lehenbiziko aldiz. Ez dute lortu fina-

lean sartzea, baina laurek ere bertso oso txukunak borobildu zituzten, eta ez da gutxi. Ea zer moduzkoa iruditzen zaizuen Amaiak bere estreinako txapelketan kantatu zuen ale hau. Gai hauxe egokitu zitzaion: "Zure ama bi aldiz ezkondu da".

Doinua: Balentin Berriotxoarena

*Ama ezkondu eta banandu
ederra paraderua
horregatikan egon nintzan ni
altxa ezinik burua
ta orain berriz bigarren aldiz
amatxo zait ezkondua
ea oraingoan osatzen degun
familia segurua*



Handien mailan, 15 urtetik 18ra bitartekoan, alegia, Manex Elola, Maddi Gallastegi, Markel Peñalba eta Maialen Velarde laukotea izan dugu gure ordezkari. Saio onak egin dituzte laurek Eskoriatzan eta Urretxun; ikusten da oholtzara ohitzen ari direla, plazak ematen duen bertsolari tankera sumatu diegu. Maialenek lortu zuen Oiartzungo finale-rako sailkatzea, baita bertan ongi kantatzea ere, baina aurtengo bi sariak Zarautz aldera egin dute

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitarteak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



hegan Oier Aizpurua eta Hodei Iruetagoiena adiskideen buruetara. Bejondeizuela bioi, badakizue hemen gaukazuela elkarrekin bertsozaintza bidean aurrera egiteko lagun.

Esan genezake, oro har, ikasturte oparoa izan dela aurtengo. Jakina

da, Iñaki Gurrutxaga bertsolari oriotarra aritu dela herri eskolan ikasleak ikasturtean zehar bertso mundura inguratzen, Gipuzkoako Bertsozale elkartearen egitasmoaren baitan eta Zumaiako Udalaren diru laguntzaz. Eskolaz kanpoko jardunari dagokionez, hau da, bat-bateko bertsozaintza

lantzeko asmoz, astero Forondako gure gelatxo txukunean ibili direnei buruz, esan behar dugu hogeitaz gaztetxo aritu direla aurten hiru taldetan banaturik, Zumaiako bertso eskolaren ardurapean.

Goian aipatu dugun, lau M-dunen taldea da gaur egun arlo honetako ardatza. Alde batetik lauren arteko bertsolari talde autonomoa osatzen baitute, astero elkarrekin bertso ariketak burutuz, gaurkoz aparteko maisurik gabe. Eta bestalde berriz, Maddi eta Maialen bikoteak bi gaztetxo talde zuzendu ditu kurtso honetan zehar; "a" taldea, seigarren mailako sei bertsolari gaiz osatua, eta "b" taldea, DBHko, 13-14 urteko beste 6 lagunena. Markel eta Manex, berriz, laugarren mailako zazpi ikaslerekin aritu dira, bertsozaintza lehen urratsak eman ditzaten laguntzeko asmoz. Gure herri eskolako hogeitaz gaztetxo, gehienak neskek, ibili dira, beraz, astero Basarri eta Lazkao Txikiren arrastoa jarraitu nahian. Hauxe izan da gaztetxoaren irakaskuntza sailean aurtengoak eman duena. Jaioko dira berriak.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko arrietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



☎ 696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



MENDI - ONDO c.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Baxakarte atxilotuta eraman zuten

Jesus Iruretagoiena Lafuente atxilotu zuten Espainiako Poliziak uztailaren 11n. Atxiloketa goizeko 11:30-12:00ak bitartean izan zen. Iruretagoienak 69 urte ditu eta senideak eta lagunak hasieratik kezkatuta agertu ziren Jesus Iruretagoienari inkomunikazioa ezarrita jasoko zuen tratua zela eta.

Espainiako Polizia Arroako ordainlekuko biribilgunean zain zuten Iruretagoienak. Emaztearekin zihoan autoan atxilotu dutenean.

Jesus Iruretagoienari ETaren izenean Zumaia inguruko enpresaburuaren aurrean bitartekari lanak egiteko kontakturako gizona izatea leporatu diote.

Entzutegi espainoleko Fernando Grande-Marlaska epaileak Gorka Agirre EAJko kidea deklaratzera deitu ostean kaleratu zuen autoan aipatu zuen haren izena, horri buruz izan ziren filrazioen arabera. Garzonek agindu zuen hauen atxiloketa.

Inkomunikatuta zuten ordutik eta bere egoerarekin kezkatuta zeuden senideak. Izan ere, belaunean ebakuntza egin berri zioten eta atxilotu zuten egunean irten zen lehen aldiz kalera. Hartara, eta beste osasun arazo batzuk ere bazituela argudiatuta, epailearen aurrera berehala eramateko eskatuz habeas corpus eskea egin zuten.

Uztailaren 12n, arratsaldeko bost eta erdietan hasi zen deklaratzeko Iruretagoiena, eta bi ordu inguru aritu zen Garzon epailearen galderei erantzuten. Jesus Iruretagoiena Baxakarte aske gelditu zen uztailaren 12an, iluntzean, Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratu ondoren. Fiskalak ez zuen haren aurkako neurririk eskatu eta epaileak libre utzi behar izan zuen.

Fiskalaren irakurketa aintzat hartuta, aske uztea erabaki zuen Garzonek. Epaileak, baina, Iruretagoienaren aurkako inputazioa mantendu du sumarioan. Astero sinatzera joan behar du, eta Espainiako Estatuaren mugetatik ezingo du atera epailearen baimenik izan gabe.

Atxiloketak salatzeke, bestalde, hainbat mobilizazio egin ziren aste horretan. Zumaian egindako manifestazioan, esaterako, 150 lagun bildu ziren.



dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa,
Baloraziok

Baleikeren argazki lehiaketa


Oporretara al zoazte? Hemen geratzen al zarete? Ba ez ezazue zuen argazki kamera etxean utzi eta har ezazue parte Baleikeren udako argazki lehiaketan.

Irabazlearentzako saria bi lagunentzako afari eder bat izango da... eta izango da sorpresaren bat ere...

Erne! Datorren astean Baleike.com-en jarriko dugu lehiaketa honi buruzko informazioa: baldintzak, argazkiak non utzi edo nora bidali, zein formatutan, etab.

Irailaren hasiera arteko epea izango duzue argazkiak bidaltzeko, eta urriko aldizkarian emango dugu irabazlearen berri. Aditu batzuek erabaki dute zein izango den argazki irabazlea, baina www.baleike.com-en ere izango duzue zuen iritzia emateko modua!

Parte hartu eta ondo pasa oporretan!!



CROISSANTERIA



pizzak
hanburbesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330



Oroigarriak, diplomak eta bi sari nagusi

Ekainaren 30an, San Pedro egunaren ondorengoan, banatu zituen Udalak 2006ko Zumaia Sariak. Aurten kiroletako sariak bereizi egin nahi izan dituzte, eta lortutako garaipenen arabera, oroigarria edo diploma jaso zuten **herriko 125 kirolarik: 35ek oroigarria eta 90ek diploma**. Argi geratu zen gauza bat: ohiko kiroletan –piraguismoa, arrauna, esku-baloia, zesta punta, futbola, etab– aritzen direnez gain, hain ezagunak ez diren kiroletan aritzen direnak ere badaudela Zumaian. Besteak beste, hauek: Eric Banda Euskadiko txapeldunordea da taekwondon, Josebe Zarautz Espainiako eta Euskadiko txapelduna eskaladan, Jose Luis Garcia Euskadiko txapeldunordea arku tiroan eta Ane Moreno Euskadiko txapelduna arrantzan.

Kirolariekin batera, kultur eta gizarte arloan ere sari bana eman zituen Udalak. Kultur arloan, Agustin Zubimendik, San Pedro abesbatzaren, Gabon Koruaren eta Beheko Plazako Abesbatzaren zuzendariak jaso zuen Zumaia Saria, Zumaiaiko abesbatzetan egindako lanarengatik eta zaletasun hau herrian zabaltzeko lanean duen garrantziarengatik. Zubimendik berarekin abesbatzetan aritutako lagunak izan zituen gogoan saria jasotzerakoan eta abeslari ona izanik, bertso baten bitartez eskertu zituen guztiak.

Gizarte arloan, berriz, Nagusilan elkarteak kideak izan ziren sarituak. Taldearen izenean, Jose Luis Elosuak jaso zuen oroigarria. Nagusilan elkarteak kideek beraien denbo-



ra librean laguntza ematen diete behar duten beste edadetuei; hala, sendagilearengana lagundu edo konpainia eskaintzen diete, besteak beste. Maria Eugenia Arrizabalagak gaur egungo gizarte indibidualistan horrelako talde batek duen garrantzia azpimarratu zuen saria ematerakoan. Jose Luis Elosuak, berriz, sari honek herriak beraien lana ezagutzeko eta aurrera jarraitzeko indarra ematen dietela nabarmendu zuen: "Poza ematen digu sari hau jasotzeak, ikusten delako gure lanean ondo gabiltzala".

2001ean hasi ziren Zumaia Sariak banatzen eta orain arte Udalak berak proposatu izan ditu saria jasotzeko hautagaiak. Datorren urteari begira, ordea, hori aldatzeko asmotan dira eta herritarrek eta herriko taldeek aukera izango dute hautagaiak proposatzeko.

alberto j. gorritiberea zine zuzendaria

Anjel Alkain, Asier Hormaza, Nagore Aranburu eta Kandido Uranga aktoreak bere agindupean dituela, 'Eutsi!', bere estreinako film luzea zuzentzen ari da Alberto J. Gorritiberea. Ekainaren erdian hasi zen errodajea eta uztailarekin batera amaituko da. Emaizta udaberrian ikusiko da. Errodajeaz, aktoreen lanaz eta zinearekin zerikusia daukaten gaiei buruz hizketan aritu gara berekin.

"Euskarazko pelikulen *boom* bat dagoela diote batzuek, baina nik ez dut hori ikusten, normalizazioaren pauso bat baizik"

JUAN LUIS ROMATET

Igande arratsaldean, bere jaiegunean, elkartu gara. Terraza batean eseri eta kafea aurrean dugula zineari buruz hitz egin dugu.

Elkarrizketa hau egiten ari garen unean errodajearen erdian zaude. Hasieran uste bezala al doa dena?

Oraingoz oso ondo doa. Errodajea berez nahiko konplikatu da, aurrekontua oso txikia denez, dirua sobran ez dugu eta. Berez, kokaleku askoko pelikula da eta sei aste pasa hainbeste kokalekutan ibiltzeak asko zailtzen du gauza. Hala ere, lehen muntaia bat ikusteko aukera izan dut eta lan txukuna egiten ari garela uste dut.

Zer kontatzen du Eutsi!-k?

Pelikulak bi lagun aurkezten ditu. 40 urtetara heltzen ari dira biak eta garai kritikoa batean daude. Bien bizimodua ere oso

larria da. Enpresa batean ari dira lanean eta bi urte daramatza-te greban. Enpresa beste herri batera eramateko arrisku handia dago. Bi lagun hauek bizitza bizikletan ibiltzen pasatzen dute, zikloturisten moduan, eta bizi duten egoera salatzeke Frantziako Tourrera joan eta protesta egitea pentsatzen dute.

Eutsi! komedia bezala defini daiteke, baina elementu dramatikoak ere baditu. Drama komediaren baitan sartzea beharrezkotzat jo al duzue?

Euskarazko pelikula ari gara egiten eta ekoizpen etxeak bada-kizki ikusleengana heltzeko zein bide dituen. Zaila, oso zaila da euskarazko pelikula batean inbertitu den diru guztia berreskuratzeko, baina komedia batek horretarako aukera ematen dizu, genero honek jende gehiago mugitzen baitu. Oso gustura hartu nuen enkargua, Anjel Alkain eta Asier Hormazarekin lan egitea erronka polita baitzen. Geroago, Unai Iturriaga eta biok gidoia idazten hasi ginenean, beste istorio bat sortu



“Oso gustura hartu nuen enkargua, Anjel Alkain eta Asier Hormazarekin lan egitea erronka polita baitzen”

mazaren pertsonaiaren norabidea. Azpitik lan mundua eta aita-alaben arteko gatazkak doaz eta horiek mimatu nahi izan ditut. Nire ustez, kontrapuntu polita da komedia tonu horretan oinarria drama soziala izatea, horrek indarra eta zergatia ematen baitio kontatzen den istorioari.

Gidoia Unai Iturriagarekin batera idatzi duzu. Nola moldatu zarete?

Aurrez ez genuen elkar ezagutzen. Azken hiru urteetan Baleuko ekoizpen etxerako egin dut lan eta berak ere zerbait gidoi idatzi ditu bertan, ‘Olentzero, subilaren lapurreta’-rena, adibidez. Unai eta biok bilera bat izan genuen justu bertso txapelketaren aurretik. Ikusi genuen *feeling* bat genuela biok eta istorio honetan elementu batzuk sartzeko antzeko interesa genuela. Gidoiaren lehenengo zirriborroa

egin nuen eta txapelketa amaitu zenean buru-belarri sartu ginen gidoiarekin. Hiruzpalau hila-bete luze egon ginen gidioa idazten. Garai konplikatu eta aldi berean zoragarria izan zen eta oso harreman polita sortu zen bion artean. Berekin beste proiektu batean lan egiteko aukera izango banu ez nuke ezetzik esango.

Gidoia lau eskutara idaztea erraza izan al da?

Ez da erraza, baina bi eskutara idaztea ere ez. Gidoi bat bakarrik idazten ari zarenean, beti beste-
ei galdezka, aholku bila aritzen zara. Onartu beharra daukat hasieran beldur nintzela, *Eutsi!* egin arte idatzi dudak guztia bakarrik egin baitut. Lau eskutara idazteak badi-tu oso alde onak. Gidoian zerbait onartzeko eztabaidak izaten dira gidoiagileen artean eta diskusio horietan argumentu asko erabili behar izaten dira. Eztabaida guztien ondoren landutako zerbait ateratzen da.

Telebistan lan egina zara eta zinerako egiten duzun lehen luzemetraia da *Eutsi!* Gogo bereziarekin egin al duzu?

Alde batetik, berdintsua da. Aurretik Betizurako TV-movie bat egin nuen (*BT Ispiluen jauregia*). Ia-ia zentzugabekeria bat ateratzea zen asmoa. Diru oso gutxiarekin egindako lana zen eta 15 egun besterik ez genituen izan halako istorio bat errodatzeko. Aktorerik ere ia ez genuen... azkenean arazo pilo bat zituen. Oraingo hau, azken finean, berdin-berdin hartu dut, helburua lana ondo egitea baita. Pelikula hau ere, niretzat, enkargu bat da, ez da neuk bultzatua. Ekoizpen etxe bat dago atzetik eta hark badaki nora eraman nahi duen proiektua edo zein ikuspuntu eman nahi dion. Ondo dago horrela lan egitea. Geure pelikula egin behar dugula irakasten digute zine eskolan, baina pelikulak egiteko beste mota batzuk ere badaudela jakitea ondo dago. Azkenean ikasketa bat da eta nire ibilbidean beste pauso bat. Ikusiko da hemendik aurrera askatasun gehiago dudana lan egiteko.

Aurretik zein lan egin dituzu?

Baleukorako *Beste Gu* saioaren errealizazioa eta diseinua egin

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airra** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglais
catalán française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



“Telebistan ikus-entzunezkoen arlo asko ezagutu ditut, baina argi daukat zinea dela nire helburua, beti izan da hala”



dut; *Jaiak* saioa ere zuzendu dut, eta *Kuxkuxeroak* saioan ere aritu naiz. Zine eskolan bukatu nuenean laburmetraia batzuk egin nituen Madrilen eta gero publizitate munduan aritu nintzen. Pelikula bat

handia egingo du.

Pelikula egitean modeloren bat edo izan al duzu?

Eutsi!-rekin hasi aurretik, Blake Edwardsen ia film guztiak ikusi nituen. Edwards eta beste zuzendari batzuk oso onak ziren pelikula era errazean baina aldi berean efektiboan egiten. Plano eta alarde gutxirekin egiten zituzten pelikulak eta ikasteko erabili ditut. Gaur eguneko zinean muntaia gelan salbatzen diren esperimentu asko daude. Informazio pila bat jasotzera ohituta gaude, eta nire ustez kontenplazio dohaina galdu dugu. Argi daukat formak edukiaren menpean egon behar duela eta nire kasuan, asmoa istorio bat lasai kontatzea da, plano gutxirekin, eszenaratzea eta *off*-ak erabiliaz, etab. Faltan sumatzen dut pelikulak lehen kontatzen ziren moduan kontatzea eta kontrako bidea hartzea beharrezkotzat jotzen dut une honetan.

egiteko proiektu bat ere izan nuen mahai gainean, baina azken unean ez zen atera, eta telebistan bukatu nuen. Behetik hasi eta pausoz pauso egin dut lan. Gustura nago, ikus-entzunezkoen arlo asko ezagutu baititut, baina argi daukat zinea dela nire helburua, beti izan da hala.

Zer moduz moldatu zara aktoreekin?

Oso ondo. Oso hurbilak eta irekiak iruditu zaizkit denak. Lan egiteko gogo handia dute eta hori nabari da. Niretzat ere oso ona izan da hori. Hormaza teknikoki oso ona da eta kontrapuntu bezala, Alkain intuitibo moduan kristorena da. Nire ustez lan oso polita egiten dute biek.

Kandido Uranga ere hor da. Aurretik ezagutzen al zenuten elkar?

Zinea egitea oso garestia dela diote. Zein formatutan ari zarete errodutzen?

Definizio altuko bideo kamera batekin ari gara grabatzen, kamera digitaletan dagoen gama handienean. Kamera mota honekin egin zen lehen pelikula Julio Medemen '*Lucia y el sexo*' izan zen. Zinea egiteko merkeagoa da eta lana erraztu egiten du. Bestela, zineko formatua erabiliko nuke, beste zerbait eskaintzen baitu. Hala ere, irudi aldetik oso ondo ari da geratzen. Primerako talde bat dudala ere esan behar dut eta oso gustura nago beraiekin. Lehen egu-



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01





Izena:

Alberto J. Gorritiberea.

Adina:

36 urte.

Pelikula gogokoena:

Andrei Tarkovsky-ren El Espejo.

Zuzendari gogokoena:

Andrei Tarkovsky.

Aktore gogokoena:

Bruno Ganz eta Margarita Therekova.

netik konfiantza handia jarri zuten nigan eta babesa eman zidaten.

Aupa Etxebeste! eta Eutsi!-rekin, baita Pablo Maloren *Friol de invierno* eta Koldo Serraren *Bosque de sombras* pelikulekin ere, Euskal Zinea hitza edo definizioa berreskuratu da. Zein da zure iritzia?

Ez dut inoiz sinetsi eta orain ere ez dut sinesten. Nik dakidala, euskaraz egindako pelikulak, azken urte hauetan, behintzat, hiru dira: 'Aupa Etxebeste!', 'Zeru horiek' (Bernardo Atxagaren eleberrian oinarrituta Aitzpea Goenagak zuzendutako pelikula) eta gurea. Zine euskalduna? Nik zineari ez diot mugarik jartzen. Ea egiten dudana hurrengo pelikula bi hizkuntzetan den! Errealitatean oinarritzen gara zinegileak pelikulak egiterakoan eta euskaraz hitz egitea errealitatea da. Euskarazko produktueterako badago ikuslego bat eta zorionez ari dira ikuslego horrentzako pelikulak sortzen. Hala ere, oso berandu etorri dela uste dut. Orain *boom* bat dagoela diote batzuek, baina nik ez dut hori ikusten, normalizazioaren pauso bat baizik. Galizian edo Katalunian zenbat pelikula egiten diren ikusten badugu, gurea ez da *boom* bat. Pena da. Zinegile asko gaude hemen, baina oso gutxi dugu zerbait egiteko aukera. Espero dut hemendik aurrera egoerak hobera egitea.

Aupa Etxebeste!-ren arrakastak ate batzuk ireki dizkio euskaraz egiten den zineari. Baina aparteko presio bat ez al duzue sumatuko?

Nik alderantziz esango nuke. Euskarazko pelikulentzako zirkuitu berri bat ireki du eta beldur batzuk uxatu ere bai. Pozga-

"Kandidorekin ikasten ari naiz eta maite dut zein gogor eta serio egiten duen lana. Munstro bat da"

ria da hiriburuko zine aretoetan euskaraz egindako zinea ikusi ahal izatea eta, zer esanik ez, Zumaian zinea leporaino beteta ikustea. Hori oso ondo dago, euskarazko pelikulak nahi dituen jendea badagoela erakutsi baitie banatzaileei. Presiorik ez dut, ordea. *Aupa Etxebeste!* pelikula bat da, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* beste bat izango da eta *Eutsi!* beste bat. Eta atzetik beste pila bat etorriko dira.

Eutsi!-ren ondoren ze asmo dituzu?

Lehenik eta behin, atsedena hartu nahi dut, gero lan gogorrean etorriko baita, promozioarena. Ulertzen dut beharrezkoa dela eta egin beharko dut, baina erosoago sentitzen naiz kameraren atzean aurrean baino. Jada proiektu berrietan pentsatzen hasia naiz. Momentu honetan idazten hasteko gogoarekin nago, ideia batzuk borborka ditut eta buruan.

Pelikula bat egiteko aukera izan zenuen orain urte batzuk. Zer gertatu zen?

Bi ekoizlerekin harremanetan jarri nintzen eta urte oso batean egon nintzen gidoi bat lantzen. Madrilgo Kultura Ministeriotik diru bat ere eman ziguten proiektua garatzeko, baina ekoizleak eta nik ez genuen batak bestearekiko konfiantza edo sinisme-



nik. Kontratua sinatu behar nuen egun berean atzera egin nuen. Uste dut ondo egin nuela, ze gogorra izan liteke aberatsa baina mingarria izan daitekeen bidaia batean sinesten ez duzun pertsona batekin joatea. Horren ondorioz, dena uzte-kotan egon nintzen eta hemen, Ayra Durexen, bi hilabetetan egin nuen lan. Ondo etorri zitzaidala uste dut, horrela ikasi bainuen bizitza nolakoa den. Gero, hortik telebistara itzuli nintzen eta orain hemen nago *Eutsi!* errodutzen. Pelikula hura oraindik bizirik dago, ez dut inoiz utzi eta egunen batean egingo dudalakoan nago.

Oker ez banago, film luze bat egiten duen lehen zumaiarrazara.

“Informazio pila bat jasotzera ohituta gaude eta kontenplazio dohaina galdu dugu”

A bai? Ez nekien. Espero atzetik zumaiar gehiago etortzea eta ziur nago etorriko direla. Eneko Dorronsoro dago pelikulako taldean. Barzelonan ikasten ari da eta gogotsu ikusten dut, oso mutil interesgarria da. Ea atzetik bat, bi, hiru lagun etortzen diren eta agian, egunen batean, santelmoei buruzko pelikula dokumental bat egingo dugu denon artean!

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



Aurreko zenbakiko erantzuna:
Harrobia

Sariduna: Aitor Agirre Egaña

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten...

Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.

GALDERA:

Aita Mari dagoen izkinatik abiatuko gara, "Pulpo"-ren ondotik, eta Erribera kalean aurrera egingo dugu, Beheko plaza aldera. Gaur egun ezker-eskuin etxeak daude, baina garai batean ezker aldean apenas zegoen etxerik. Duela urte gutxi arte almagaren zeuden, portuko materiala gordetzeko: ikatza, Beduako hiraulika... Eskuinaldera, berriz, alde zaharra daukagu, "Goiko kalia" bezala ere ezaguna, Zumaia gune zaharrena. Magnoliora iritsi baino lehen, eskuinaldera egingo dugu, "Sorazuneko aldapa"-tik gora, San Juan iturri aldera. Etxeei eta kaleei begiratuta, ez da hain zaila imajinatzea nolako zen garai bateko Zumaia edo nola bizi ziren zumaiaarrak. Etxeak ondo aztertuta, oraindik detaile oso politak aurki ditzakegu, antzinakoak eta ondo kontserbatuak. Horietako bat aukeratu dugu, hain zuzen ere, gaurkorako: egurrezko balkoiak dituen etxe hau. Askotan pasatuko ginen ondotik edo azpialdetik, begiratu ere bai, baina ikusi... Zein kaletan daude argazkiko balkoiak?

Erantzunak elkartea@baleike.com bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behe) edo 943 86 15 45 telefonoan eman zuzailaren 4a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

Parte hartu eta zorte on!!

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



• Portatillak eta ordenagailuak
• Laguntza teknikoak
• Tresna digitalak

Eusebio Gurrutxaga, 6
tel. 943143395
ertz@laciinet.es

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

anjel osa arrizabalaga

(2)

Anjel Añeza

ABELIN LINAZISORO

Beraz, lehen, Algorri alderako lurrealdea beherago al zegoen Amaiako Plaza baino?

Bai. Kontuan hartu behar dek, Amaiako Plaza eiteko bete lana lehengo moila zegon parera ein zala, eta San Telmo kaletik aurrera, Ardantza alderako lurra, askoz beherago geratzen zala. Gu umiak ginala, ondo akordatzten nauk, Ardantza aldera erreka bat zeoan, ez zeoan sororik eta euri asko eiten zunian, errekek gainez eiten zian eta dana urez beteta geratzen huan. Erriua bezela.

Ura ez al zen Amaiako Plazatik barrena arranpla aldera edo erriora joaten?

Ez. Sakonune hori moila baino asko beherago zegolako. Pixkanaka urak bi edo hiru egunian behera eiten zian eta bale.

Mutil koxkorrek zinatenean Zumaia soroez josita egongo zen, ezta?

Bai. Dana. Talai Mendia, Erriberak, luaki danak, Basusta aldia, Ardantza...

*“Zubi haunditik
beduara basadi
zaharrak deitzen
gitxuan eta zubi
haunditik alde honeta
basadi berriak. Ordu
erdi bat edo behar
izaten ginien haraino
juteko eta behiekin
oraindik gehio.”*

Sagar asko al zen?

Sagastiak bahittuan, oain baino gehio, baina ez zak pentsatu... Gaztainak bai. Keetxupeko hortan. Basustatik Bedua aldera dagon palda hortan. Alde hartara gaztaina eta alde honetara sagarra. Mendaronekuak, Matiase-nekoak, Xoxokuak... hoiiek zitien sagasti eerrak. Guk ere baginien sagastia. Terreno dexente gitxikan hor-eta. Baina arbola asko ez. Hogeita hamar bat edo.

Jarrai dezagun gerrarekin. Garai hartako desfileekin-eta akordatzen al zera?

Francon tropak herri bat hartzen zutenian kanpaiak-eta jotzen zutela bai, baina ba al dakik zer gertatzen zan? Orduan ere gu lanian. Gainera hain urruti gitxizkan bazterrak... Zubi Haunditik Beduara Basadi Zaharrak deitzen gitxuan eta Zubi Haunditik alde honeta Basadi Berriak. Eta San Migelko pare-parian beste bi erribera gitxizkan. Ordu erdi bat edo behar ginien haraino juteko

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

eta behiekin oaindik gehio. Bizimodu latza huan. Kanpaiak eta katxaperuak aitu bai, eta egia esan ez zigun batere onik eiten, baina ikusi, ezer ez. Gu abertzaliak gitxuan eta radiuan zer aituko ere eoten gitxuan. Hau ein dutela, hura ein dutela... Eta egun batian... hik ere jakingo dek, hamengo agintariak jendia herritik kanpora bialdu zian. Familia asko. Hura desastria! Zenbat ama bialdu zien umiekin! Hura huan desastria hura! Semiak edo aittak frentian zialako. Hura izan huan hura!

Orain guk badakigu Zumaian haina lagun inongo herritik ez zutela bidali.

Ez. Ez. Hala esaten zien behintzat. Inon ez. Eta gero zera gertatu huan, kale-baserriak-eta gobernatzeko laneako jendia falta zala. Desastria! Nik ez zekiat nola... Pentsa zak, gure izeba soltera ere, amaren ahizpa, hanka batetik elbarria zalako maku-luakin ibiltzen zana, ba, hura ere bialdu nahi izan zien. Bere ahizpakin. Ez zekiat zeinen bidez, baten batena jun eta larri-larri libratu hittuan bialdu gabe.

Zerrenda hura egin zuena ere...

Bai, hura egin zunak ez zian lo lasai ingo. Ez zikak iruditzen jende horrek lo lasai ingo zunikan. Hura gogorra izan huan. Eta gero... Bi emakumei ilea rape moztu ziuena eta kalia gora



“Zumaiarrak orduan militarizatuak zibetian. Frentera jun ez zianak, herrian geratutakoak, batzuek donostira, besteak beasaina... militarizatuak jun hittuan.”

eta behera ibiliazi. Hura gogorra izan huan. Gogorra.

Beno. Zu lanean 1.938-an hasi zinen, 15 urterekin. Beraz, oraindik gerra bukatzeke zegoela. Pintxe bezala hasiko zinen, ezta?

Bai. Lehendabizi kaldereian jarri niñuen. Badakik, Karmelonian kalderak eta barkuentzako makinak eiten zitien. Kalderak eiten pare bat hilabete pasa eta gero tornura pasatu niñuen. Hantxe ikasi nian ofiziuia.

Langile artean zer moduzko giroa zegoen?

Ona. Gu lanian hasi ginanean, dana jende heldua zean. Edadetuak. Izan ere, zumaiarrak orduan militarizatuak zibetian. Frentera jua ez zianak, herrian geratutakoak, batzuek Donostira, besteak Besaina... militarizatuak jun hittuan. Eta orduan Karmelonian bezela, herrian jendia behar huan lanerako eta halaxe sartu gittuan danok lanera.

Militarizatuak, herritik kanpora bidalitako mekanikoek, zer lan mota egiten zuten?

Gerrako lana. Obusak-eta eiten. Gerrako behar zuten guztia.

Hemen Zumaian, gerrarako lanik egiten al zen?

Baietz uste diat. Otto Holke-nian zeozer. Ojibak-edo. Baina, seguru-seguru ez natxiok.

English School
Harvest

Oporretan gaude irailaren 18ra arte
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051
S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**





Karmelonian?

Ez. Karmelonian kalderak eta makinak. Gero hasi huan motorrekin. Yereginean ere motorrak.

Garai hartan zenbat ontziola zeuden?

Ba, Zubi Haundian, Zakariasekoa. Egurrezko barkuak Aperribai eta hauek eiten zitien. Paol Aldian. Baina lehendabizi hemen txapezko barkuak Balentziagak eiten zitian. Betondo huan enkargatua. Xegundo Kerejetak egurrezko barkua ein zula ere akordatzen nauk. Tauro izena zian. Gehio ere ein zula uste diat.

Gerra bukatu ondoren, frentera joandakoak eta herritik bidaliak

*“Ferrolen sumarino
alemanak puertora
babes bila sartzen
hittuan eta abioi
ingelesak atzetik
etortzen hittuan
sumarinoen kontra
metrailetakin tiro eiten.
Momentu txarrak
izaten hittuan haiek.”*

izan zirenak, nola itzuli ziren akordatzen al zara?

Ez. Hemeretzi urte bitartian etxean eta tailerrean lanian, eta gero bi urte-tako soldau jun nittuan. Orduan Europako gerra zeoan, eta soldadutzako bi urte hoietan Zumaian zer gertatu zan, ez zekiat.

Hemeretzi urterekin, 1.941-ean, oraindik preso zegoen zumaiaarrik ba al zegoen?

Bai. Nik Ferroleko kartzelan preso bat bixitatu nian. Artian jendea eongo ez huan, ba, kartzelian! Bai hoixe.

Bi urte horiek Ferrolen bertan eman al zenituen?

Bai. Hiru hilabete instruzioa ikasten eta gero Crucero Canarias-ea destina-tu niñuen eta hantxe pasatu nian soldautza osoa. Han Ferrolen, sumarino alemanak puertora babes bila sartzen hittuan eta abioi ingelesak atzetik etortzen hittuan sumarinoen kontra metrailetakin tiro eiten, eta guk: Oain ere badiagu zeozer! Momentu txarrak izaten hittuan haiek.

Soldadutza amaitu ondoren, hemen Zumaian, zinera eta dantza egitera joaten al zineten?

Bai. Zinera Maitena-ra eta dantza, ba... bandak jotzen zian.

Soldadutza baino lehenago dantzan egiten al zenuten?

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

**FARMA ZUMAIA
PARAFARMAZIA**

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozkoak, Estresaren, Antselatarearen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

Behin ere ez diu ein eta nola eingo ginien, ba, orduan!? Guria izaten huan, ba, zera, jaia ailegatuko huan, sei-zortzi lagun alkartu eta Beduara, Oikira... Han zerbait jan eta... Bueno, orduan jatekoa ere... Jan eskazeixa ere izan huan. Baina gure asteburua horrelakua izaten huan.

Jan eskazeixa garaian, zuek soroa-eta zenituztenez, ez zenuten gose handirik pasako, ezta?

Bueno, soroa ez diu asko izan. Etxerako artua baginien eta errotan artua igo eta moakila jaten ginien.

Gose garaian arraia jango zenuten, ba?

Arraia... Esango diat, ba. Gerra denboran ez zeoan libre saria erriora botatzea. Pordillosek-eta bazien Isabelita izena zun motorra eta Santion botatzen zien saria. Lazuna pila harrapatu eta aiuntamentu aurrera eramaten zien. Gero gu han kolan jarri eta bakoitzari bina edo hiruna lazun ematen zien etxerako. Zeozer jan ein behar!

Ez al zineten haitzera joaten? Olarrutara, txoazkinetara...

Bai. Hori geatu ere ez. Oso gaztetatik. Beti ibili izan gaittuk Itsaspen.

Gerra garaian eta ondoren libre izaten al zenuten Itsaspen arrantza egitea?

Bai. Egunez bai. Gabarrantzan-eta ez zien uzten, eta, gerra garaian behar bada, noizean behin-edo, egunez ere galazita eongo huan. Baina ez nauk ondo akordatzen. Gu juten ginala, bai. Nei asko gustatu izan zikak olarrutara jutia. Txoazkinak harrapatzera ere bai.



Andarika ere nahiko izango zen, ba, orduan.

Bai, baina ni neu ez nauk behin ere andariketan ibili. Olarrutara anaia eta biok juten gitxuan eta nahiko olarru ekartzen ginien etxerako. Tomatiakin-eta jateko. Olarrua patatekin... Olarrua lehortu ere bai...

Gose garaian nahiko ondo moldatu zineten, orduan.

Bai. Gu moldatu gitxuan.

Oilo batzuek ere baginien. Arrautzak... Patata ere eiten ginien. Bai, nahiko ondo moldatu gitxuan. Ezer ez zeukanak, ba, boniatoa-eta jan behar. Bueno, boniatoa danok jaten ginien, e? Danok. Eta hura ere gutxiegi.

Etxean zenuten errota nolakoa zan?

Txikia. Horrelako errotak ganaduentzako erabiltzen hittuan. Artua osorik eman beharrean, errotan txikitu eta jaten emateko.

Hemen garia jotzeko makinak-eta ba al ziran?

Bai. Garia jotzekua Joxe Manuel Iruretaren aittak zian. Baserrietan Astigarraga ibiltzen huan. Baina herrirako Iruretak zian. Hotel Urangaren beste aldian nola zeuden etxe txiki batzuek erriberetan? Ba, hantxe behian jotzen zian garia. Hemen inguruan gari gutxi eiten huan, Santa Klaran, Pikoten eta hor goian bai. Baina guk kale-baserrikoek gutxi. Eta Iruretarena eramaten ginien jotzeko.

Agerrek ere ez al zeukan garia jotzeko makina bat?

Bai. Ahaztuta nitxuan. Honek ere baserrietan jotzen zian. Automobilak-eta ez zeudean artian eta behiekin tira behar gurdibidetik.

*“Pordillosek-eta bazien
isabelita izena zun
motorra eta santion
botatzen zien saria.
Lazuna pila harrapatu
eta aiuntamentu
aurrera eramaten zien.
Gero, gu kolan jarri eta
bakoitzari bina edo
hiruna lazun ematen
zien etxerako.”*

jarraituko du...

Aldatzeko bidean, Oxford!

Erribera kalearen hasieran jada urte batzuk dituen eraikin bat dago herri osoan ezaguna. Eraikinari erabilera asko eman izan zaizkio: duela urte batzuk haur eskola egon zen, Gazte-txola ere bertan egon zen eta erakusketak ere egiten dira.

Oxford eraikinaz ari gara, jakina!

MAITANE AGIRRE ETA IURE ALTZIBAR

Oxford eraikinari erabilera ezberdinak eman zaizkion arren azken urteetan nahiko hutsa egon da. Egoera horretaz jabeturik, herriko talde ezberdinek proposamenak egin dituzte eman dakioken erabileraren inguruan.

Garbi ez badago ere zer egingo den badirudi proposamenak erabilerari zuzenduta egongo liritezkeela. Hau da, herritarrei zuzendutako eraikina izango litzateke eta kultur arloko ekintzak egingo liritezke.

Udaletxeak proiektu argirik ez badu ere bide beretik joko duela dirudi. Hasiera batean esan zuen eraikin guztia gazteei zuzendua izango zela. Bertan, musika grabatzeko gelak eta bilerak egiteko lekuak egokituko lituzke. Oraindik ere proposamen horri eutsiko lioke baina beheko solairuan erakusketak mantenduz. Maria



Eugenia Arrizabalagak adierazi digunez, "inguruko erakus-keta gelarik egokiena dugu toki onean dagoelako. Hala ere txukuntzeko asmoa dugu".

Bestalde, arazorik nagusia irisgarritasunaren inguruan ikusten dute, uste baitute beharrezkoa dela Mari kalera igogailu bat jartzea (bai udaletxeak baita talde ezberdinek ere).

Azkenik, alkateak adierazi digu garai batean deialdi ireki bat egin zela proposamenak biltzeko eta jende gutxi agertu bazen ere oso ideia orokorrak landu zituztela. Honekin lotuta aipatu behar da herriko talde desberdinek bilerak egiten dituztela proposamen ezberdinak lantzeko. Hauen helburua, denek batera (Udala barne) Oxforden erabilera adostea da.

Alondegia zaharra

Txinparta euskara taldearen proposamena:

Hemen doa Txinparta Euskara Taldeak egindako proposamenaren laburpen bat:

"Lehen-lehenik, gure egitasmo-proposamen hau erabilerari buruzkoa dela adierazi nahi dugu. Proposamen honetan ez da aurreikusten eraikinaren egitura eta kanpoaldea aldatzea.

Beheko solairua:

Gure proposamena solairu horrek erabilera nagusi bat izatea da; hau da, erakusketa-aretoa izatea. Erakusketarekin lotura izan dezakeen edozein emanaldi ere bertan egin ahal da, eta, horrela, espazioak izaera definitua izango du. Horrek ez du esan nahi, ordea, bertan beste ekintzarik egin ezin daitekeenik.

Gure ustez, beraz, erakusketari eman behar zaie lehentasuna. Hori dela-eta, barrualdea erabat eraberritzea proposatzen dugu: barrutik gela guztia panelez estali beharko litzateke, eta argiak, bai espazioari, bai espazio horren erabilerari egokitu beharko litzazkieke.

Beheko solairuan, bi igogailu egongo lirateke: bat, jendearentzako; bestea, berriz, zamarentzako. Sarrera, berriz, Amaia plaza izango luke.

1. solairua:

Lehen solairu honi bestelako erabilera ematea proposatzen dugu, eta balio anitzeko gela bihurtzea.

Ezkerrean (Erriberatik begiratzuz gero), taula bat egongo litzateke. Solairu honetan edozein motatako emanaldiak, ekitaldiak, eta abar egingo lirateke, eta, beraz, kasu honetan ere, kontuan izan beharko dira argiak, pertsianak eta halako kontuak.

Erribera aldetik begiratuta, taberna izango genuke, eta jatekoa ere ematea proposatzen dugu.

Gure proposamenaren arabera, beraz, solairu hori herriko kultura-ekitaldiak egiteko espazioa izango litzateke.



Ekitaldiak edozelakoak izango lirateke: formatu txikiko antzerkiak (edo formatu handikoak), bideo-emanaldiak, hitzaldiak, kontzertuak, etab.

2. solairua:

Bigarren solairu hori gelaka banatuko litzateke, eta herriko taldeek erabiliko litzazkete. Solairuak, beraz, taldeentzako gelak, bilera gela nagusi bat, herrian egingo diren ikastaroentzako gela handi bat, hosgabetua, eta komunak izango ditu.

3. solairua:

Hirugarren solairuan, plastika-tailerra izango genuke, eta halako gela batek eskatzen dituen elementu guztiak izan beharko litzazke. Horretaz gain, solairu horretan herriko taldeek erabiltzeko hiru gela, komunak eta biltegi txiki bat izango genituzke."

Natur taldekoak eta garai batean arte taldekoak izan zirenen artean osatutako proposamena: **Oxford edo Alondeggi zaharra kultura eta gizarte ekintzetarako eraikina bihurtzeko proposamena. Hemen doa hauek egindakoaren laburpen bat:**

"Gaur egunera arte izan duen erabilera kontuan hartzeaz gain, proposamen berrien bidez orain arte bete ez dituen erabilpen kulturaleri buruzko esparru berriak egokitzeko aukera aztertuko da.

Orain arte beheko solairua gehien erabili dena izan da. Mantendu beharko liratekeen funtzio ezberdinak bete ditu: erakusketak, hitzaldiak, talde handientzako bilera gela, antzerkiak, kontzertuak, ikus-entzunezkoak, ikastaroak, e.a.

Aipatutako erabilpenak hobeto egokitzeko beheko solairu honek dituen arazoak konpondu beharko lirateke:

- Eskailerak toki asko kentzen dute eta horregatik kentzeko aukera ikertu beharko litzateke. Igogailuaren beharra ere kontuan hartzekoa da.
- Kanpo aldean sortzen diren zaratei aurre hartzeko soinuen isolatzea behar beharrezkoa da. Baita goiko solairuetan sortu litezkeen soinuen aurrean ere.
- Leiho handiak panelen bidez estali daitezke hainbat erabilpen hobetzeko.
- Lurrak funtzionaltasuna izan behar du, aurreikusten diren erabilpenek eragiten dituzten zikinkeriak erraz garbitzeko.
- Komunetan arraska handiak egon beharko lirateke edo bestela arraska handiak jartzeko beste gela bat egin.
- ...

1. solairua:

Solairu honek gizarte kutsua izan beharko luke. Herrian dauden taldeen beharrak asetzeko erabiliko litzateke: bilerak eta egoitza soziala izatea adibidez.

Banaketa egin gabeko espazio bakartzat laga beharko litzateke, erraz banatzeko edo espazio txikiagoak egiteko modu errazaren aukera aztertuz.

4 gela txiki talde iraunkorrenzat, armaruak edo materiala eta liburuak gordetzeko zerbitu.



15 lagun elkartzeko aretoa (bizilagunen bilerak adibidez).

Ikastaro zehatzetarako edo bertan egin daitezkeen lanetarako gela bat (erraz garbitu daitezkeen materialak erabiltzen dituztenak).

Solairu honek izaera pribatuagoa duenez eta erabiliko duten taldeen orduategiak direla eta, aparteko sarrera edukitzea komeni da; beste solairuetatik sartzeko aukera izan gabe, igogailua eta kanpoko eskaileretatik izan ezik noski.

2. solairua:

Udal liburutegiak solairu osoa beteko luke. Mari kaleko sarreraz baliatuko litzateke eta Erribera kaletik igogailua erabili beharko litzateke.

3. solairua:

Pintura, plastika, diziplina arteko eta umeentzako tailerrak kokatuko genituzke.



luziano pagaegi udal arkitektoa

Oxfordeko eraikinaren inguruan dauden proposamen eta asmoak sortu duen jakin--mina asetzeko nahiaz hurbildu gara Udalera. Bertan arkitekto den Luziano Pagaegik hartu gaitu eta ondorengoak esan dizkigu.

Zein asmo du Udalak Oxforderako?

Gazteen arlora zuzenduta egongo da. Azken ideia gazteen-tzako lokalak egitea da: musika grabatzeko estudioa, kafe antzoki antzeko zerbait. Taldeek musika jo eta grabatzeko lokalak egitea da ideia, baina zehaztu gabe dago oraindik. Horrez gain, kontzertuetarako erabilera anitzeko gela bat pentsatu zen: filmak, diapositibak, hitzaldiak... emateko. Garbi samar dagoena da behean erakustokia mantenduko dela.

Azken ideia aipatu duzu. Zein egon dira aurretik?

Asko egon dira. Duela hamar urte etxebizitzak egitea zen asmoa, azpiko eta tarteko solairuan erakusketa gela utzita. Gero udaletxe berria horra pasatzea pentsatu zen, baina Oxford uste baino txikiagoa da. Trapezoide itxura dauka eta izkina batean sei metro inguru ditu. Han igogailua, eskaile-rak, komunak... egiten hasita ez da lekurik geratzen. Orduan, erabaki zen udaletxe berriaren ideia albo batera uztea.

Beste ideia bat behean erakusketa lekua eta goian gizarte etxe bat egitea zen, Forondaren osagarri izango zena. Propo-samen hura ere desagertu zen.

Duela sei urte eztabaida bat zabaldu zen Forondako libu-rutegia Oxfordera pasatzearen inguruan. Niretzat Foronda leku zoragarria da liburutegi eta kultur etxe moduan eta jen-deak urrun dagoela esaten badu ere Oxfordetik bost minutu-
rako dago. Horrez gain, zer egin gero Forondarekin?

Gerora beste asmo batzuk egon ziren: bileretarako lekua, eztabaidarako lekua, artisauek zein plastika tailerrak... Herriak zein behar izan zitzaizkeen pentsatu genuen.

Momentu honetan proiektua lantzen ari al zarete?

Guk aukerak aztertzen ditugu, baina ez dugu aurreproiektu-rik ere egin. Planoak egin genituen, leihoak eta gainerako-



ak non dauden eta zein neurri dituzten jakiteko, aukerak aztertzen ditugu: kafe antzoki bat egitea posible den, gizarte etxe bat nolakoa izango litzatekeen...

Estudioaren ideiarekin, adibidez, krokis moduko bat egin genuen eta zenbat kabina beharko liratekeen kalkulatu: gela bat grabaketarako eta beste bost edo sei instrumentuak jotzeko. Horretarako kabina intsonorizatu beharko litzateke. Gero, lokal batek bete beharko litzatekeen ezaugarriak hartu beharko lirateke kontuan eta hau dena proiektuan zehaztu. Nik argi dudana da igogailu bat egin behar dela: batetik, bar-neko erabilerrako eta bestetik publikoa izateko, hau da, Oxfordetik Mari kalera pasatzeko. Igogailu hori Oxford barruan egongo litzateke, bertako igogailuaren instalazioa aprobetxatuz.

Zergatik joan beharko luke igogailu horrek barrutik? Igogailua barrutik jarriz gero beti egongo al litzateke jendearentzat zabalik?



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694**

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA
OPIL-OKINDEGIA**



Mari kalerako eskailerak oso maldatsuak dira eta eskailera mekanikoak jartzeko estuak, ez baitago mekanismoak eta baranda sartzeko lekurik. Amaiako plaza aldetik egiteko ere arazoak daude, herrirako sarrera historikoak galtzen direlako. Gainera, gurgildun aulkidun bat ezin da eskaileretan igo. Beraz, igogailua da alternatiba. Baina leku horretan igogailua jartzea ezinezkoa da, igogailua eta pasabide bat jarri beharko

liratekeelako eta horrek kale estua jango lukeelako. Ingurune hori oso zaila da horrelako lan bat egiteko

Barruko igogailuaren proposamen bat egin dugu, baina oraindik Mari kalekoek ordutegien inguruan ditzuten beharrak neurtu behar dira. Laburbilduz, igogailua barnetik ibiltzeko izango da, baina Mari kalera pasatzeko aukera izango da.

Ez du beti zabalik egon beharrik, posible da hala egitea edo Oxfordeko egitarauaren arabera ordutegi publiko bat jartzea: 09:00etatik 21:00etara, adibidez. Igogailua asteburuetan ere erabiltzea egongo litzateke, eraikin osoa itxi eta igogailua erabiltzeko atea zabalik utzita.

Proiektu hori garatzeko, diru laguntzak lortzen saiatu al da Udala?

Uste dut bazegoela eraikinak berritzeko diru laguntza bat eta horren epea aprobetxatzea komentatu zela. Lanen % 30 ordainduko litzateke laguntza horrekin eta horiek 200 milioi lirateke, BEZa barne.

Orokorrean, Eusko Jaurlaritzak diru laguntza guztiak uda baino lehen ateratzen ditu. Asmoa da musika kontzertuak egiteko leku baten proposamena egin eta horretarako diru laguntzak lortzea. Ez dakit zehazki zer egingo den, baina laguntza lortzeko Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Ba al dago eperik Oxforden inguruko proiektuak proposatu edo lehiaketara aurkezteko?

Gauza bat da aurreproiektu ematea Eusko Jaurlaritzan eta diru laguntzak jasotzea. Gero, ordea, proiektua garatu egin behar da. Laguntza emanez gero, ideien lehiaketa bat egongo litzakeela pentsatzen dut bere garaian komentatu baitzen. Nik, hala ere, gauza bat eskatzen dut proiektua egiteko garaian: aurrealdea bere osotasunean mantentzea.

Amaitzeko, herriko taldeen proposamenak iritsi al zaizkizue?

Guk hemen ez dakigu ezer. Hirigintzan behintzat ez dira aurkeztu, agian kultura sailera joango ziren.

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^o Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
analkularitza teknikoak.
Balorioak

TXINGURRI
Koof. Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA

Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

BALEIKE

Zumaian egin den Taldeen arteko XII. Surf Txapelketa arrakastatsua izan da, EHSFren ustez. 150 bat lagun elkartu dira.

Urteko ospakizun onena izan omen da, eta azken urteetako taldeen arteko txapelketarik onena. Bate-tik, eguraldi zoragarria izan dutelako, eta, bestetik, olatuak metroa baino handiagoak. Parte hartzea, berriz, handia izan da, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako surf talderik onenak elkartu dira bertan.

Larunbatean jende ugari izan zen jaialdia ikusten. Egun horretan, Zumaiako Itzurun Surf Kirol Ekar-

Zumaiako taldeak irabazi du Surf Txapelketa

teak parte hartu zuen, eta herrikoak izan ziren nagusi. Gauean, Zumaiako taldeak antolatutako barbakoa eta DJen musika emanaldiaz gozatu ahal izan zuten. Igandean, aldiz, itsasoa pixka bat baretu zen, baina nahiko olatu izan ziren surf egiteko. Azkenean herriko taldeak irabazi zuen txapelketa.

Beraz, ZISKEk gordeko txapeldu-nen kopa datorren urtera arte. Izan ere, hemendik aurrera, urteroko txapelkunaren izena grabatuko dute sarian, eta talde horrek zaindu behar-ko du kopa hurrengo urtera arte.

Datorren urtean Sopelan izango da txapelketa, horiek izan baitira aurtengo bigarren taldea.



IRUDIA: EHSF

Emaitzak taldeka

1. Zumaiako Itzurun Surf Kirol Elkarte
2. Peñatxuri Surf Taldea
3. Groseko Indarra Surf Kirol Elkarte
4. Zarauzko Surf Elkarte
5. Barrika Surf Taldea
6. Debako Zurrumbilo Surf Taldea
7. Bakioko Surf Taldea
8. Getariako Gaztetape Surf Taldea
9. Chonix Surf Taldea (Sopela)
10. Erauntsi Surf Taldea (La Arena-Zierbena)

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana

Florapantegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

AIZPURUA

LIBRURUDEN

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Hektor Llanos eta Soraya Perez garaile

III. triatloian

Zumaiako III. Triatloiak eman zion uztaileko kirol ekitaldiei hasiera. Hilaren 8an egindako proban, 300 partaidetik gora bildu ziren. Gizonezkoetan Hektor Llanos izan genuen garaile eta emakumezkoetan Soraya Perez.

JOSEBA ALKORTA

Zumaiako Triatloiaren hirugarren ekitaldi honetan, olinpiar luzerako proba bukatu behar zuten partaideek. Horrela, triatletek lan hau egin zuten: 1,5 km igerian, 46 km bizikleta gainean eta 10 km lasterka. Esan beharra dago, gainera, aurtengo ibilbidean aldaketak egon zirela. Izan ere, bizikleta gainekoan Nuarbeko urtegiara joan-atorria egin beharra zegoen, Meagako errepidea konpontzen ari direlako.

Proba Arbustaingo arranplan hasi zen. Bertan 300 partaidetik gora bildu ziren, eta beste hainbeste parte hartzeko gogoz geratu ziren, antolatzaileek kopurua mugatu egin baitzuten.

Gizonezkoen mailan, lehia parekatua bizi izan genuen; hala ere, azkenean faborito nagusia gailendu zen: Hektor Llanos. Triatloiaren hasierako igeriketa saioan, Oscar Abad izan genuen lehena itsas kiroldegiko arranzara heltzen; atzetik, Llanos, Jon Unanue eta Ciro Tobar iritsi ziren. Baina bizikleta gainekoa heldu zenean, frogan zeuden bi indartsuenak nabarmendu ziren: Hektor Llanos eta Jon Unanue zarauztarra, alegia. Biak denbora berean heldu ziren lasterketa saiora, baina saltaka hasitakoan Llanosek atzean utzi zuen Unanue. Azkenean, 2 ordu, 4 minutu eta 50 segundoko denbora-



rekin gailendu zen Llanos; bigarren Unanue izan genuen; hirugarren, berriz, Ciro Tobar.

Jon Ulazia, lehen zumaiarra

Lehen zumaiarra izateko lehia ere handia izan zen, Jon Ulazia eta Erlantz Esteibar berdinduta ibili baitziren frogan osoan zehar, baina lasterketa saioko azken kilometroetan Jon Ulaziak Erlantz Esteibar atzean uztea lortu zuen. Ulazia hamaikagarren postuan sartu zen; Esteibar, berriz, hogeita laugarrenean.

Emakumeen mailari dagokionez, hemezortzi izan ziren parte hartzaileak. Bereziki nabarmendu beharra dago azkenean Ainhoa Muruak ez zuela parte hartu; antolatzaileen esanetan, etortzekoa zen, baina azken orduko gaixotasun batek frogatik kanpo utzi zuen triatleta zarauztarra. Azkenean, Soraya Perez izan zen garailea, 2 ordu, 20 minutu eta 10 segundoko denborarekin; bigarren, Inma Rafael; hirugarren, berriz, Laura Fernandez. Maila honetan, lehen zumaiarra Olatz Gabi-londo izan genuen.

- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

unai gijarro txirrindulari amateurra

“Berez ez dira lehiaketak, baina azkenean lehia moduan hartzen ditugu

MIKEL OLASAGASTI

Ekainaren 17an "Quebrantahuesos--en XVI. ekitaldia egin zen Sabiñanigon (Huesca). Zikloturisten artean, Frantziako Tourrak profesionalengan duen antzeko ospea du. Ibilbidea bera ere, Tourreko etapa menditsu baten antzekoa da, 205 kilometroekin eta 4 mendate gogorrekin. Besteak beste, Marie Blaque mendatea ere badago, profesionalak aurten igo behar izan dutena. Proban 24 zumaiarrek hartu zuten parte, eta horietatik Unai Gijarro izan zen lehena. Bere lana 6 ordu, 34 minutu eta 17 segundotan burutu zuen; 501. geratu zen, 7.138 parte hartzailetatik.

Egindako lanarekin gustura? Denbora hobea egitea espero zenuen?

Ez, ez, gustura nago egindakoarekin. Nik uste aurten eguraldiak asko lagundu digula. Bero handiegia ez zuen egin, nahiz eta momentu batzuetan erre puntua baze- goen. Lasterketan zehar eguna lainotsua izan zen eta euri pixka bat ere izan genuen. Horrelako proba batean beroak asko ahultzen du pertsona. Alde horretatik, ezin gera kexatu.

Lehen urtea al duzu "Quebrantahuesos" egiten?

Ez, aurtengoa hirugarrena dut.

Nola bururatu zitzaizun egitea?

Aurretik lagun batzuk irten ziren eta haiekin komenta-



Zumaiako zikloturista elkarteko sailkapena:

GIJARRO IRURETAGOiena, UNAI	6:34:17
ARGOITIA AIZPURU, MIKEL	6:49:01
AIZPURUA AGIRRETXE, ARKAITZ	6:57:22
URBIETA SUDUPE, JUAN ANTONIO	6:57:31
ARRIBILAGA URANGA, JOSE MIGUEL	6:58:17
EIZAGIRRE GOMEZ, JON IÑAKI	7:01:43
ETXABE URBIETA, IBON	7:06:33
MANZISIDOR MENDIZABAL	7:07:23
CORTES LOPEZ, IMANOL	7:27:17
HERNANDEZ GARCIA, JUAN LUIS	7:28:14
KORTA, OIER	7:31:10
EIZAGIRRE OSA, JON	7:33:44
ETXABE GABARAIN, JUAN MIGUEL	7:50:54
ETXABE URBIETA, ASIER	7:54:42
GUERRA VAZQUEZ, JOSE JOAQUIN	7:55:27



libelario
Iñaki Gomendio

Basodi 7 behe - 20750 Zumaia - Tel.: 943 143 310
Email: veterinarie@basodidinivel.com
Web orria: www.basodidinivel.com

Gorax 11-13 / Arraialdeak: 10-1930 / Arretaren gaitasuna eta lortutakoak itzuli.

Larritik aurrera 085 720 767 Etxe-osteko zerbitzuak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

zidatzeko baimen guztiak



tzen, bizikletan ibiltzen hasi ginen eta horixe, inbidia pixka bat eman zidan eta irtetea erabaki nuen.

Zer du zikloturista martxa honek, hainbeste bizikletazalek (7.138) parte hartzeko?

Nik uste ibilbidearen gogortasunagatik edo Pirinioek duten xarmagatik izango dela. Ibilbide bezala oso polita da, eta Pirinioek txirritularitza esanahi berezia dute. Azken batean, probak bere ospea lortu du eta gero eta zikloturista gehiago joaten dira.

Zenbat denbora entrenatu behar duzu horrelako lasterketa bat egiteko?

Zenbat denbora ez dakit; gu, behintzat, neguan hasten gara ibiltzen. Hasieran mendiko bizikletan jarduten dut, asko gustatzen zait eta. Gero errepideko bizikletarekin kilometroak egiten ditut eta lasterketa eguna hurbiltzen doan heinean ibilbide luzexeagoak egiten ditut.

Tourra martxan dagoela, eta dopin kontuek izan duten oihartzuna kontuan hartuta, horrelako zikloturisten martxetan ere ba al dago dopinik?

Uff! Hori nik ez dakit, nik dakidana da orain dela pare bat urte Italiako Dolomitetan egiten den klasika batean, polizia ziklisten artean sarekada bat egin eta debekatutako produktu mordoak aurkitu zituela (Epo eta antzekoak). Orduan, bakoitzak atera ditzala bere kontuak.

"Beti dago zer hobetu, baina "Quebrantahuesos" bezalako lasterketa batean antolakuntza punta-puntakoa da"

Horrelako lasterketetan, zer joaten zara lehiatzera ala amaitzera? (lagun arteko "pike", apustuak...)

Berez ez dira lehiaketak, baina azkenean lehia moduan hartzen ditugu. Izan ere, maila handia duen jendea dago eta abiadura handian doazenez, azkenean besteok ere horiei jarraitu nahi diegu. Hala ere, badago jendea amaitzera doana edota denbora jakin bat egitea doana. Bakoitzak bere asmoa dauka.

tera doana. Bakoitzak bere asmoa dauka.

Hain martxa ospetsuetan (zikloturisten tourra da), segurtasuna ere beharrezkoa da. Aurten hildako bat eta zauritu ugari izan dira. Alde horretatik, ba al dago zer hobetu?

Beti dago zer hobetu, baina "Quebrantahuesos" bezalako lasterketa batean antolakuntza punta-puntakoa da, bai bidegurutzak seinalizatzen, baita hornidura guneak jartzen ere. Zuk aipaturiko ezbeharrak berdin gertatzen dira segurtasun handienarekin ere, eguraldiaren edota errepidearen eraginez.

Beraz, beti dago zer hobetu, baina alde horretatik, "Quebrantahuesos"--ek 10 bat merezi du.

Orain beste lasterketarik egiteko asmorik bai?

Orain momentuan ez dakit. Bizikletan ibiltzen jarraituko dut eta probaren bat aplikatzen bada, ikusi dugu.



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

ander hormazuri margolaria

Artadin egin dugu hitzordua Ander Hormazurirekin. Aldapa igo ondoren (kotxez, ezin ukatu), bertan gara. Frontoian haurak jolasean, amaren begiradapean. Etxe txuri-gorirantz abiatu eta atera irten da Ander.



“Lan hau aurrekoak baino koloristagoa eta biziagoa da

IURE ALTZIBAR ETA MAITANE AGIRRE

Nabari da, bai, artisten lantokira sartu garelako: koadroak han-hemenka, zapia haien gainean... Aulkietan eseri ondoren eta margolanez inguratutik, hasteko moduan gara. Ander Hormazuri artista zumaiarrak Oxforden du erakusketa uztailaren 21etik abuztuaren 13ra bitartean. Horri buruz eta bere orain arteko ibilbideaz hitz egin dugu.

Aukeratu al dituzu Oxforden erakutsiko dituzun lanak?

Bi erakusketa ditut data berdinetan. Normalean hogeita hamar koadro inguru eramaten ditut, baina neurriaren arabera izaten da. Bertan egon arte ezingo dut zenbaki zehatza jakin. Bestalde, aukeratzea ez da uste bezain zaila.

Zein lan mota egongo dira bertan?

Nire pintura lana abstraktu samarra da eta oraingoa aurrekoak baino pixkat koloristagoa eta biziagoa da. Nire ibilbidea ezagutzen duenarentzat esan daiteke aurreko lanen antzeko zerbait aurkituko duela, baina zertxobait alaiagoa, nire obra beti izan baita serio eta sakona. Ezagutzen ez nauenarentzat, berriz, esango dut kolorearekin jolasten dudala eta niretzat kolorea eta forma instrumentalak direla, eta horrekin atmosfera bat egiten dudala.

Zertan oinarritzen zara lanak egiteko garaian?

Uste dut oinarriak margotzen hasi nintzenean hasi zirela, baina lan hau burutzeko atzera begiratu dut. Horretarako aitzakia denboraldi batean margolanak egiteari utzi izana da. Horregatik begiratu ditut aurreko lanak koadro hauek egiterakoan eta konturatu naiz garai hartan erabilitako sistemek eboluzionatu egin dutela. Beraz, atzera begiratzea aberasgarria izan da, iraganekoaren babes hori lagungarria baita. Azken batean, obra hau orain dela urte batzuetako lanak ikusiz egina da,

baina orduan baino gehiago gozatuz. Aurreko lanetan agian serioegi hartu dut artea. Serioa da, bizitzako arlo garrantzitsu bat delako, baina oraingoa artearekin gozatzera joan naiz, dakidanarekin jolastera.

Esan duzu denboraldi batez pintura utzita izan duzula. Zein beste lan egiten dituzu?

Bai, aspaldian ez dut koadrorik egin beste lan batzuetan ibili naizelako. Normalean, pinturarekin zerikusia daukaten lanetan ibiltzen naiz eta, besteak beste, eskolak ematen ditut kultur etxean. Horrez gain, ilustrazioetan eta beste arlo batzuetan ere aritu naiz: kartelak egiten, pegatinak...

Ni ez naiz ibiltzen zirkuituan, dirua lortzeko beste bide batzuk lantzea erabaki bainuen: eskolak ematea... Azken batean, beste lan batzuk egiten ditut artea egin ahal izateko, hau da, nahi dudana egin ahal izateko.

Eskolak ematen dituzu Zumaian. Jendea apuntatzen al da?

Bai, urtero 30-40 ikasle izaten ditut. Jada hamabi urte



daramatzat klaseak ematen Zumaian. Garai batean, Aiako tailerrean nengoenean, ikastolan ematen nituen eskolak. Aizarnazabalen, Zestoan... ere ibili izan naiz. Alternatibak dira. Bizitza nola suertatzen den!

Atzerago begiraturaz, noiz hasi zinen artearen inguruan lanean?

Orain dela hogeita hiru urte hasi nintzen, hamasei urte nituenean. Hemezortzirekin Debako arte eskolan urtebete pasa nuen; gero, Aiako Tailerrera joan nintzen, eta han zazpi urte pasa nituen. Gero, Arroako Tailerrean egon nintzen hiru urtez, Txikirekin (Keixetarekin) batera eta handik Zelai Azpira joan ginenean. Duela bi urtez geroztik hemen gaude, Artadin.

Tailer bat baino gehiago aipatu dituzu. Tailerrak erraztasunak ematen al ditu lan egiteko orduan?

Momentu jakinetan babesak ematen dizu. Ni Aiako Tailerrera joan nintzen hemezortzi urte nituen eta hango helduenak hogeita hamasei-edo. Hark lagundu zidan: erdi klaseak ematen zizkidan, liburuak utzi irakurtzeko... Horrela hasten zara ikasten eta konturatzen artea ez dela marraztea bakarrik, filosofia bat dela. Horrek aurrera jarraitzeko oinarri bat ematen dizu. Beste kasu batzuetan, Txikirenean adibidez, ez nuen nora joanik Zumaian, eta berak utzi zidan lekua Arroako Tailerrean. Ezer ez daukazunean lokala behar duzu eta babesak da.

Bestalde, besteak lanean ikusteak ere laguntzen du. Bakarrik lana hobeto egiten duzu, baina beste bat lanean ikusteak motibatu egiten zaitu. Ni ez naiz inoiz bakarrik egon tailerrean eta uste dut ez dela negatiboa norbaitek in egotea bakoitza bere lekuan egoten bada.

Duela bi urte Ardantzabidetik Artadira aldatu zineten. Zer moduzkoa izan da aldaketa?

Ardantzabiden lau pertsona geunden: Arantxa, Barbara, Txiki eta ni. Gero Txiki eta biok geratu ginenean azkeneko

urte eta erdi edo biau. Hangoa bukatzen ari zela alternatiba bilatu behar genuen, bestela lokalik gabe gelditzen ginelako. Orduan Udalaren bitartez lau urtetarako lekua lortu genuen, Artadin.

Ezin da esan hona etortzeak abantailarik ekarri digunik: hura tailer industrial bat zen eta altura eta espazioa zuen; hau, berriz, txiki geratu zitzaigun hasieratik.



Kapaia
Taberna

Enbidea Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 79

SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Udako zinea 2006: erraldoien astea

Azken urteetan bezala, aurten ere udako zine astea jarri du abian Ostarrena zine klub taldeak. Abuztuaren 21etik 25era, bost pelikula eskainiko ditu. Hasiera batean nabari ez bada ere, bost pelikulek badute lotura bat: aktoreak, zuzendariak edota pertsonaiak, era batean edo bestean, erraldoizat jo daitezke.

OSTARRENA ZINE KLUB TALDEA

Pelikula handi, erraldoi batekin hasiko da aurtengo zine astea, tximino protagonista bezain erraldoia den Peter Jackson-en King Kong berriarekin, hain zuzen ere. Eratzunen jauna proiektua amaitu ondoren, Merian C. Cooper eta Ernest B. Schoedsack-ek 1933an egindako klasiakoaren egokitzapena burutu nahi izan zuen Zeelanda Berriko zuzendariak (ahaztu dezagun 1976 Dino De Laurentiisek bultzatutako pelikula traketsa). Horretarako primerako aktore taldea inguratu zuen Jacksonek: Oscar saria irabazi berri zuen Adrien Brody, Naomi Watts eta Jack Black. Protagonistak ez dira, ordea, aktore bikain hauek, ordenagailuez egindako gorila erraldoia, baizik. Azken teknikak erabiliaz, benetako animalia baten antza duen tximinoa sortu zuten ordenagailuetako magoek. Pelikularen irudiei dagokionez, azpimarragarriak dira 1930eko hamarkada hasierako New York liluragarria edota King Kong bizi den irla ezezagun eta beldurgarria. Istorio zahar bat eta teknologia berriak elkartuta, Peter Jacksonek abenturetako pelikula klasikoa eta, aldi berean, berritzailea sortu du.

Eta erraldoi batetik beste batetara. Johnny Cash abeslaria 2003ko irailean hil zen, bere bizitzari buruzko pelikularen ekoizpena hastear zegoenean. Johnny Cash, country musikaren erregea izateaz gain, Estatu Batuetako abeslari garrantzitsuenaren izan zen askoren esanetan Bob Dylan eta Ray Charles-ekin batera. En la cuerda floja pelikula haur txikia zenean hasi eta 1968 Folsom

presondegian emandako kontzertuarekin amaitzen da. Bien artean Sun records diskoetxean egindako grabazioak (Elvis Presley, Carl Perkins, Jerry Lee Lewis eta Roy Orbisonekin batera eman zituen kontzertuak.

A zer nolako karte-la!), drogekin izandako arazoak eta June Carter abeslariarekin mantendutako harremana jasotzen ditu. Aipagarriak dira Joaquin Phoenixek eta Reese Witherspoonek egiten dituzten lanak eta, nola ez, Johnny Cash beraren en kantuak.

Oso entzutetsua ez bada ere, Hollywoodeko zuzendari garrantzitsuenetakoa izan da Sidney Lumet beterranoa. Bere debuteko pelikulatik, 1957ko 12 angry men (gaztelaraz Doce hombres sin piedad) bikainetik, Estatu Batuetako sistema usteldua salatu du hainbat eta hain-



TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64


bat filmetan. Bere filmografia luzeko harribitxien artean aipagarriak dira *Serpico*, *The offence*, *Dog day afternoon* edo *Network*, besteak beste. Aita Marin eskainiko den *Declaradme culpable* hau Estatu Batuetan izandako epai luzeenetako batean oinarritzen da.

Jack DiNorscio mafiosoak (Vin Diesel) bere burua defendatzea erabakitzen duenean, epaia bera eta,aldi berean, sistema osoa hankaz gora jarriko du. Umorez betetako "pelikula judiziala" eskaini digu Lumet handiak.

Estatu Batuetako literatur munduko izen distiratsuenetakoa izan zen Truman Capote. Eleberri, erreportaje, elkarrizketa eta ipuinen idazlea, zinearekin ere harreman handia izan zuen. Bere bi liburu, Hollywoodek egindako bi maisulanen iturriak izan ziren: *Breakfast at Tiffany's* (Desayuno con diamantes) eta *In cold blood* (A sangre fría). Azken liburu hau idaztera bultzatu zuten ekintzak jasotzen ditu Truman Capote pelikulak. Kansasen izandako hilketa batzuei buruz entzun eta erreportaje interesgarri batetarako gaia izan zitekeela sumatzean, bertara inguratuko da idazlea. Agian oharatu gabe, XX. mendeko liburu txundigarrienetako idatzi zuen Capotek. Azpimarratzekoa da Philip Seymour Hoffmank egiten duen lana.

Akziozko pelikula batekin emango zaio amaiera aurtengo udako zine asteari. Ez da edonolako pelikula, ordea, kritikari askoen ustetan azken 10 urteetan egin den akziozko pelikula onena baita: *Mission Impossible III*. Aurreko bi emaitza irregularren ondoren (lehen, entretenigarria; bigarrena, jasangaitza) hainbat arazo izan

ziren hirugarren kapitulu hau egiteko. Azkenean *Alias* eta *Lost* (Perdidos) telesailen sortzailea den J.J. Abrams-ek hartu zituen gidolari eta zuzendaritza lanak eta hori emaitzan igarri egiten da: pertsonaiak ez dira karrikatura hutsak, barne bizitza ere badute. Eta non dago hemen erraldoia? Agian Hollywoodeko kuttuna den Tom Cruise txikia izan liteke, ukitzen duen produktu oro urte bihurtzen duena.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

UZTAILA

23, igandea
 13:00etan, HAUR FOLKLORE
 JAIALDIAREN taldean kalejira
 18:30ean, HAUR FOLKLORE
 JAIALDIAREN ikuskizuna plazan
 25, asteartea
 19:00etan, Eusebio Gurrutxaga
 plazan, haur bertso-jaialdia
 "1,2,3... Inaxito"
 28, ostirala
 19:30ean, Kiroldegian, Areto
 futbola eta futbol 7ko
 txapelketen finalak
 29, larunbata
 23:00etan, Eusebio Gurrutxaga
 plazan, DEABRU BELTZAK
 taldearen suzko ikuskizuna,
 "Les diables noir"
 30, igandea
 22:00etan, Maria eta Jose
 aretoan, Musika Jaialdiaren
 Zabaltze ekitaldia: Isabel Rey
 sopranoa eta Alejandro Zabala
 pianoan.
 31, astelehena

19:00etan plazan, KANPANOLUE
 Haur berbena

ABUZTUA

1-6ra
 Zumaiaiko Musika Jaialdiko
 ekitaldiak
 4, ostirala
 22:30ean, Mari kalean, Musika
 eta zinea: "El último" filma
 zuzeneko musikaz.
 5, larunbata,
 Gauean zehar Gala Gaua:
 Berbena Berezia, Diskoteka
 gunea...
 11, ostirala
 Euskal Jai eguna
 15, asteartea
 ZUMAIAKO KALEKO PINTURA
 TOPAKETA
 19, larunbata
 Goizean, Boskirol froga 2006
 Eta arratsalde-iluntzean,
 Koadrilen Eguneko egitaraua

21etik 25era
 Udako Zinema zikloa 2006
 Abuztuak 21, 22:00etan, "King
 Kong"
 Abuztuak 22, 22:30ean, "En la
 cuerda floja"
 Abuztuak 23, 22:30ean,
 "Declaradme culpable"
 Abuztuak 24, 22:30ean, "Truman
 Capote"
 Abuztuak 25, 22:30ean, "Misión
 imposible III"
 23tik 26ra
 OIKIAKO JAIAK

IRAILA

16, larunbata
 Olarru Eguna
 29an eta 30ean
 ARTADI AUZOKO JAIAK
 30, larunbata:
 17:00etan, "ZAKILA BIRA"

Ander Hormazuri Oxforden

Aspaldiko partez, Anderren arte lanak ikusteko
 aukera izango dugu herrian.



Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
 Tel. 861155

GANBARA
 Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
 SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
 Tel. 943 143058

L **AUTO-ESKOLA**
 PRACTICAS

STOP

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
 TEL: 943 86 10 21

taberna
JUSTA
 eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20

LEIZE
 taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Casa BASUSTA



CASA BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua
Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611